



ATAUN EGIN
ELKARREKIN
HERRI-PLANA

ATAUNGO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA.



AURKEZPEN SAIOAREN MEMORIA
AIA. ATAUN, 2023/10/04

Bertaratutakoak

Herritarrak	Hamabi lagun: 7 emakume eta 5 gizon
Udal ordezkariak	Martin Aramendi, Alkatea eta Mikel Dorronsoro, Hirigintza zinegotzia
Lantalde teknikoa	Hektor Espin, Eñaut Muñoa (Astazaldi), Julen Landa (Gislan), Susana Martinez eta Inesa Ariztimuño (Aztiker)



1- SARRERA ETA KOKAPENA

Martin Aramendi alkateak egin du saioaren irekiera prozesua kokatu eta helburuak gogoraraziz.

Ondoren, Aztikerrek HERRI-PLANA eta HAPOren lanen nondik norakoak azaldu ditu laburki.

2- AURREDIAGNOSIAREN AURKEZPENA

Julen Landak aurkeztu du HERRITARRAK ETA ONGIZATEAri dagokionez aurrediagnostiko teknikoaren laburpena. Hiru zatitan egin du aurkezpena:

- Diagnostikoa
- Gakoak
- Erronkak

Ikus. HERRITARRAK ETA ONGIZATEA. AURKEZPENA

3- PARTAIDEEN BALORAZIOAK/ EKARPENAK

Aurkezpenaren ondoren, bi erronda ireki dira herritarren inpresioak, iritziak eta proposamenak jasotzeko. Jarraian jasotako balorazio eta ekarpenak:

ENTZUNDAKOAREN **BALORAZIOA**

ZERK DEITU DIZU **ATENTZIOA?**

- Ez nuen espero biztanleria gutxitzen joatea, herrian orohar, eta Elbarrenera jaisteko joerak harritu nau
 - Lehenengo sektorearen pisua: lana bai baina txanponik ez
 - Gazteak landa bizitzari bizkarra ematen: ikasketa maila altua, kanpora lanera...balioak hor daude.
 - Errotzeko zailtasunak: gazteak kanpora (etxebizitza egokiak gazteen emantzipaziorako ez...)
 - Adinean gora. Zaintza familietan gertatu da orain arte, eta ondo zainduta, baina, datorren belaunaldia? Familiak jarraituko du zaintza bermatzen?
-

ZERK DU **GARRANTZIA** ZURETZAT?

- Auzoa berrindartzea. Berbizitza
 - Jatorri anitzeko pertsonen Integratzeko bideak asmatu. Integrazioa bertan bizi ahal izateko bertakoa desorekatu gabe (EUSKARA, euskal kultura, balioak...)
 - Teknologia. Teknologiak eskaintzen duena baliatu bertan ere bizi ahal izateko
 - Bizitza kulturala, mugimendua behar da gazteak bertan gelditu eta bizi proiektuak egiteko
 - Lehen sektorean iraultza bat dago pendiente: zerbait berria sortzeko gai izan beharko genuke: lurra eta natura baliatua bertako ELIKADURA
 - Bertan ekoiztea. Lurrak badira. Erronka berriekin lotzea inportantea da
 - Etxe hutsen kopurua handia da. Onartezina. Gazteen emantzipazioak etxe txikiak, merkeak, alokairuak...ez dago egun!
-

AURRERA BEGIRA: ERRONKA ETA KEZKA NAGUSIAK DEFINITU

ZURETZAT, ZEINTZUK DIRA ATAUNEK DITUEN **ERRONKA NAGUSIAK?**

- Zaintza zerbitzuak (bereziki hirugarren adinari lotuta)
- Lehenengo sektorea: iraultza baten beharra
- Nola PRESTIGIATU gurea den hori (hiria Vs landa; lanbideak...)
- Migrazioa eta bizikidetzeta. Herriaren nortasunari heltzeko estrategiak landu behar dira (EUSKARA)
- Generoa. Dagoen errenta arrakalari atentzioa
- Euskara
- NATURATik abiatu sortu edo sustatu nahi den hori
- Komunitatea, herri proiektua. Datozen erronkei ez zaie aurre egingo instituzioetatik soilik. Herri proiektuak sortu eta landu behar dira.
- Zerbitzuak eta azpiegitura: zer eskaini, jakinda ezin dituela ondoko herrietako zenbaitekin "konpetitu"

ERRONKA HORIEI AURRE EGITEKO, **ZER LANDU** BEHAR DUGU **HERRI BEZALA?**

- Zaintza
- Natura
- Lehen sektorea
- Gazteak: bertako bizitza eta bizimoduaren prestigioa
- Generoa
- Euskara
- Herriaren nortasuna
- Komunitatea

GUZTIAK BEHAR DU INTEGRAZIOA ETA PROIEKTU KOMUNA BIHARTU, TXAPELA BERDINAREN AZPIAN!!!

BESTERIK

Aipatu dira eta ireki dira hausnarketarako beste zenbait iritzi:

- Ataun markaz ari garenean, kasu, folklorismoa ez da bidea.
- Ataun Marka: berezko balioak bizitza eta balio modernoekin lotzean egiten den ekarpena, balio+ hori antzeman eta marka bihurtu.

4- ITXIERA

Ixteko, eskerrak eman eta hurrengo deialdiak eta proposamenak zein iradokizunak egiteko bideak gogorarazi eta bukatutzat eman da saioa.

Ataunen, 2023ko urriaren 4ean.